



JANARIA EZ BOTATZEKO RAPA

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukia:

Arloa: Gizarte-zientziak. 2. blokea: Gure mundua.

Arloa: Hizkuntza eta literatura. 3. blokea: Idatzizko komunikazioa: idatzi.

Arloa: Hezkuntza musikala. 2. blokea: Interpretazio musikala.

Arloa: Gizartearen eta herritarren balioak. 3. blokea: Elkarbizitza eta gizarte-balioak.

Behariko dugun materiala:

«Udarearen istorioa» ipuinaren rapa (eranskinean).

Hezitzailearentzako oharra:

- Jarduera hau egin baino lehen, «Udarearen istorioa» ipuina irakurri behar duzue, eta eginak izan behar dituzue «Hozkailuko janariak botatzen» jarduera eta «Kanpaina egiten» jardueraren gutxienez lehen fasea.
- Esteka hauetan, raperako oinarri erritmikoak topatuko dituzue. Erabilgarriak izan daitezke jarduera honetarako:
 - <https://www.youtube.com/watch?v=Q0JWsvIewIA>
 - <https://www.youtube.com/watch?v=kZU9YY1UDMQ>
 - https://www.youtube.com/watch?v=6W_0fWzHguq
 - <https://www.youtube.com/watch?v=1e66UhRY2Os>
 - <https://www.youtube.com/watch?v=HHLgdUzU2Dc>

Garapena:

1. fasea: ikus dezagun rapa nola egiten den

- Denen artean, irakurri eranskineko rapa, ozen. Eman letra neska-mutilei, eta musika jarri.
- Errepasatu «Kanpaina egiten» jardueran egindako dekalogoak.

2. fasea: egin dezagun gure rapa

- Aurreko praktikan oinarrituz, jarri neska-mutilak taldeka, eta talde bakoitzak bere rapa sor dezala: dekalogoak sortzean landutakoan oinarrituz sortu beharko dute letra, eta oinarri erritmikoa erantsi beharko diote.



3. fasea: zabal ditzagun gure rapak

- Talde bakoitzak bere rapa aurkeztuko du. Oso egokia litzateke rap horiek janaria botatzen den lekuetan interpretatzea (adibidez, jangelan edo jolastokian, jolas-orduan), edota ikasturtean zehar ikastetxean izaten den jaialdiren batean, mezua ikastetxeko gainerako ikasleengana zabaltzeko.
- Beste aukera bat ere badago: rap horiek grabatzea eta sare sozialen bidez zabaltzea, «Kanpaina egiten» jardueraren esparruan.

Eranskina:

Bukatu denez istorioa,
abesti bat kantatzera goaz,
zeren eta orain badakizu
zer egitea dagokizun:
rap honi musika jarri,
janaria ez botatzeko alferrik.

Elikagaiak, janariak,
botatzen ditugu zakarrontzira.
A zer nolako astakeria!
Geldiaraz dezagun erokeria!
Jende askok ez dauka jateko ezer,
eta gu botatzen gabiltza hemen.

Janaria bota baino lehen,
pentsatu ze kalte egitera zoazen.

Hainbeste ur lurrak ureztatzen,
traktoreak han-hemenka airea kutsatzen,
janaria hor dago
eta zuk bota nahiago?
Izan zaitez zentzuduna,
zaindu ezazu zure ingurua;
jendeak eta planetak
emango dizkizute eskerrak.

Janaria bota baino lehen,
pentsatu ze kalte egitera zoazen.